



Abiadura Handiko Trena – Ezaugarriak, Eragina, Eredua

Frantzian **TGV**, Train à grande vitesse. Sevillan **AVE**, Alta Velocidad Española
Euskaraz **AHT**, Abiadura Handiko Trena. Gaztelera **TAV**, Tren de Alta Velocidad

Paris eta Lyon bezalako hiri jendetsuenak lotzeko asmatu zuten. Automobilez egiteko urrutiegi eta hegazkinez hurbilegi zeudenak (P-L 460 Km).

Euskadin tren arrunta zaharra eta desegokia zela baloratuz proposatu zuten hiru hiriburuak beraien artean eta Madril eta Europarekin lotzeko --> **Y** grekoa, eta Nafarroarako adarrarekin **H** nafarra.



Ezaugarriak:

Lur gaineko hegazkina
Sasi guztien azpitik eta
laino guztien gainetik

- 250 Km/orduko hartu ahal izateko kurba zabalak eta aldapa txikiak behar ditu,
- Biaduktu luze garaiak eta tunel sakonak
- Inausketa, betelanak eta zabortege handiak (100 metro zabal ere)
- Energia kontsumo handia $E \propto v^3$ (~8'8 megawatt)
- Trazaketa desbideratzea oso saila da, ibilbideko herriek nahi ez arren finkatutako bidetik egin behar da
- Hain abiadura azkarrean joanda gelditu eta abiatzeak asko kostatzen du eta batezbesteko abiadura asko gutxitzen du, beraz geltokiak hiriburuetan bakarrik dagoz.

Eragin ekologikoak:

Lurra gainazala puskatzea – plataforma (~128Km x 20 m) + inausketak + zabortegeak + pistak + instalakuntza laguntzaileak + obretarako piztak eta abar + harrobiak + ...

Trazaketaren erdia biaduktu edo tunelean doa – hormigoi gehiago behar da, harrobi gehiago.

Energia elektrikoa asko xurgatzen du – AAA, Abioi, Automobil, Ave familiakoa da. Ez Bus, Bizikleta, Tren familiakoa. Zentral nuklear, termiko, hidraulikoen eraginaren partaide.



Eragin ekonomikoak:

Y grekoaren aurrekontua 3.000.000.000 euro (1998an). Gaur egun gastu bikoitza kalkulatu da, biloi bat pezeta. Ez dago bape argi ekonomia sustatuko zuenik, diru hori inbertsio bezala ikusteko. Merkantziak eramango dituela aurrakusten da, baina ez balio erantzi handikoak ez abiadura behar dutenik. Hiriburuera loturiko jarduera industrialak bultzatuko lituzke, herri txiki eta nekazal jardueren kaltetan.

Gizarte eragina:

Herri txikiak hustu eta hiriburuak erraldoitzeko joera, hiriko bizimodu isolatu, triste, estresatua sakonduz.

Erabaki politikoak agintaritzaz, partaidetzaz hartu ordez (hartu dira eta hartzea behar du AHTak).

Enpresa handi globalizatuen alde doa, izan ere Europar Batasunean TEN programa, Trans European Transport Networks. bultzatu dutenak transnazional berezi batzuk dira, ERT (European RoundTable of Industrialists). Siemens-AVE afera adierazgarria da, ezkutuko diru-sari ezlegal itzela eman zion Siemens-ek PSOeri elektrifikazioaren kontratua lortzeko.

Abiadura Handiko Trenek garraio eta **gizarte eredu jasanezina** bultzatzen dute. Merkantziak zein pertsonak gero eta gehiago eta urrutirago garraiatzea. Kontua ez da kamioiak eta kotxeak sustengarriago den trenarekin ordezkatzea*, guztietaz gehiago egitea baino.

Gizarte eredu honetan kontsumoak urtero egiten du gora arlo guztietan, %2 edo %10 tartean:

- Bilbora sartzten den kotxe kopurua
- Metroan doan jende kopurua (5 miloi bidai bidaiari inguru hilero)
- Elektrizitate kontsumoa Espainian (Ikusi taula).
- Petrolio ustiapena munduan (22 miloi barril inguru egunero?)
- ← Zeuk bete beste adibide batzukaz.
-

(*) Eusko Jaurlaritzatik datorren publizitatean milaka kamioi ordezkatuko dituela diñoe, baina asmatutako zenbaki sineskaitzak izan ohi dira, eta batez ere, benetan kamioiak ordezkatzeko beste bide arruntak ez dituzte garatu, badagoen tren arruntak adibidez kapazitate handia du erabili gabe. Alderantziz, errepideetako garraioa bultzatzea da joera nagusia, SuperSur autopista Bilboko superportuko kamioiak bideratzeko eraikiz.

Consumo eléctrico anual		
AÑOS	Consumo (GWh)	Evolución anual
1998	172.707	
1999	185.456	7%
2000	199.568	8%
2001	209.233	5%
2002	218.392	4%
2003	231.860	6%
2004	239.212	3%


(Fuente: OMEL- Mercado de Electricidad)

Alde batetik pertsona bakoitzaren erantzukizuna da xahutzekeri hori, eta murrizten ikasi beharko genuke. Askotan esfortzu gabe egin daiteke, besteetan aurreztea esfortzua da baina emankorra.

Bestalde erantzukizun nagusia agintari politikoek eta botere ekonomikodunek daukate. Beraiek erabakitzen dituztelako xahutze handienak, AHT kasu, eta beraiek bideratzen dituztelako jendearen joera asko, adibidez agintariak automobilarentzat erraztasunak emanez, eta auto enpresek publizitate handia ikustaraziz.

Izan ere gizarte eta ekonomia eredu honi ezker botere ekonomiko eta politikoa urtero esku gutxiagotan pilatzen dute: BBVAren etekina urtero %25 ingurukoa da, baina jende arruntaren soldata ia egonkorra da. Petrolio enpresak pareko eran indartzen dira, Repsol-ek Bolivian, Shell-ek Nigerian egiten dituzten sarraskiak, edo Irak-eko gerra etekin horien atzekaldea delarik.

AHTa onartzen ez dugunok oraindik gelditzeko aukera daukagu. Egin egiten badigute hurrengo inposaketari aurre egiteko indar gutxiago izango dugu.



The TGV Duplex
This is an interesting generation of the TGV, duplex in English means two levels, this is a double Decker train. **It was built because the TGV has been a victim of its own success**, SNCF found it **hard to supply enough TGV services** to cope **with the ever increasing demand**. The Paris Lyon line had reached saturation point with up to **one train running every three minutes**, there was no way more trains could be put into action. One solution was to have two TGV sets coupled together, and this is now the norm for TGV. Even two sets coupled together can't give the demanded capacity though, so it was decided to deal with the problem to build a double-decker TGV train. There were two main advantages, it had 45% more capacity, and only had 4% more drag than a conventional TGV. Naturally this is capable of 300km/h or 186mph in revenue service. It was introduced in 1996. <http://www.o-keating.com/hsr/tgv.htm>

Abiadura Handiko Trenaren aurkako Asanblada <http://sindominio.net/ahtez/> ahtez@sindominio.net
Txikizioa hemendik ta negozioa handik - Abiadura Handiko Trena azpiegitura erraldoia da, natura eta herri txikien kaltea dakar jendea hiri handietara joatera bultzatuz. AHTa eredu ekonomiko desarrollistaren ondorio eta aldi berean bultzatzaile da. Garraio xahutzailearen hazkundearekin loturiko eredu, botere konzentrazio eta desberdintasun ekonomikoak areagotzen dituen eredu. AHT = abiadura, kotxe, kamioi, errepide gehiago. Superportu, aireportu, merkantziendako plataforma intermodal gehiago. Zentrale termikoak, eolikoak edo nuklearrak, gas hodiak, linea elektrikoak, energia xahutu gelditu gabe. Urtegi erraldoiak, hipermerkatuak, eurohiria, metropoliak, dena urbea. "Hormigoia jaun da jabe"